

**16-G ZERGA ORDENANTZA, TELEFONIA MUGIKORREKO ZERBITZUEN
USTIATZAILE DIREN ENPRESEK JABARI PUBLIKO LOKALAREN ERABILERA
PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEARREN.**

1. ARTIKULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

Udal honek, ekainaren 30eko 9/2005 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen, tasa ezarri eta hori galdatzen du, udalerriko bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik, hain zuzen, hori telefonia mugikorra ustiatu edo horren zerbitzua eskaintzen duten enpresen mesedetan denean.

2. ARTIKULUA.- EGITATE ZERGAPEGARRIA

Tasaren egitate zergapegarria erabilera pribatibo generikoaren edo aprobetxamendu bereziaren gainekoa da, hain zuzen, udal bide publikoetako hegada, lurzoru eta lurpearen gainekoa, horiek telefonia mugikorreko zerbitzuak ustiatzen edo eskaintzen dituzten enpresen mesedetan direnean, auzotar gehienei edo horietako zati handi bati eragiten diotenean.

Ordenantza honen tasa arautzailea bat etor daiteke beste tarifa-kopuruekin, hain zuzen, zerbitzu-sareak kokatzeko Udalak bereziki egokitutako edo utzitako azpiegituren erabilera-lagapenaren ondorioz sor daitezkeen kopuruekin, eta horiek bai puntualak bai aldizkakoak izan daitezke.

3. ARTIKULUA.- ZERGA-OBLIGAZIOA DUTENAK

Ordenantza honek arautzen duen tasaren zerga-obligazioa dute telefonia mugikorreko zerbitzuak ustiatzen edo eskaintzen dituzten enpresek, auzotarren gehiengoari edo horien zati handi bati eragiten diotenean.

Udal barruti barruan eskaintzen direla ulertzen da, beren izaeragatik, bide publikoaren hegada, lurzorua edo lurpearen aprobetxamendua egiten duten zerbitzu guztiak, edo horrekin harremanean daudenean, nahiz eta zenbatekoa beste udalerrri batean ordaindu.

4. ARTIKULUA.- ERANTZULEAK.

1.- Zergaren gaineko Foru Arauaren 41 artikuluan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, zordun nagusiak dituen zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzuleak izango dira zergaren Foru Arau Orokorreko 42 artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak, artikulua horretan aipatutako kasuetan, eta adierazitako norainokoa.

5. ARTIKULUA.- ZENBATEKOA

Telefonia mugikorreko zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek izango duten zerga-kuota honako hau izango da, telefonia mugikorreko zerbitzuak eskaintzen dituzten

enpresak diren neurrian, Basauriko udal barrutian beren helbidea duten bezero-kopuruak biderkatzetik ondorioztatzen dena, hain zuzen, bezero bakoitzeko batz besteko sarreraren gainean 100eko 1,5 biderkatzetik ondorioztatzen dena, estatu guztian telefonia mugikorrek eragiketak kontuan izanda.

Aurreko atalean erabakitakoa aplikatzeko, eta telefonia mugikorrek eragiketen ondorioz, bezeroaren batez besteko sarrerak zein diren jakiteko, mugikorraren komunikazioen operadoreek, estatu osoan, izandako sarrera guztien kopurua zatitu egin behar da, hain zuzen, mugikorraren bidezko aipatu komunikazioak kontuan izanda, estatu osoko bezero guztien kopuruaren artean, eta ekitaldi bakoitzerako, Telekomunikazioen Merkatu Batzordearen txostenak ematen dituen datuen arabera.

Beraz, kalkulua egiteko formula honako hau izango da:

$$QT = \text{Kopurua Enpresaren bezeroak udalerrian} \times (\%1,5 \times IMO)$$

Honako hau izango da:

$$QT = \text{Zergari dagokion kuota}$$

Enpresaren bezero kopuruak, udalerrian, aurre-ordainketa eta kontratuko bezeroak hartzen ditu barne, udalerrian helbideratutako telefonia mugikorrek zerbitzuak ustiatzen dituen enpresarenak.

IMO = Mugikorrek komunikazio-zerbitzuei dagokionez, bezero bakoitzeko batez besteko sarrera, eta emaitza hori honela ateratzen da, hots, operadoreek, estatu osoan, mugikorraren komunikazioen eragiketen ondorioz lortzen dituzten negozio guztien kopurua zatitzetik, hain zuzen, mugikorraren aipatu komunikazioei dagokionez, estatu osoko bezero kopuruaren artean zatitzetik ondorioztatzen den emaitza, eta ekitaldi bakoitzerako, Telekomunikazioen Merkatu Batzordearen txostenak ematen dituen datuen arabera

IMO = $IOm / \text{mugikorraren komunikazioei dagokien bezero guztien kopurua}$, estatu osoan.

IOm = Mugikorraren komunikazioak diren bezainbatean, operadoreen eragiketengatik estatu osoan izandako sarrerak

6. ARTIKULUA.- SORTZAPENA.

Tasaren sortzapena erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean gertatuko da.

7. ARTIKULUA.- AITORPENA ETA SARRERA

Enpresa ustiatzaileek, urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen Udalean, amaitutako azken ekitaldiari dagokion auto-likidazioa aurkeztu behar dute.

Enpresa horiek ordaindu beharreko kopurua kalkulatzeko, zeina auto-likidazioa aurkeztearekin batera ordaindu beharko duten, zerga-kuotatik, dagokion ekitaldian zergadunak kontura egin dituen ordainketen kopuruak kendu beharko ditu.

Baldin eta kontura egindako ordainketak tasaren kuotari dagokion kopurua gaindituko balu, gehiegizko zenbatekoa, auto-likidazioa aurkeztu ondoren kontura egin beharko lukeen lehen ordainketan, konpentsatuko litzateke.

8. ARTIKULUA.- KONTURA EGINDAKO ORDAINKETAK.

Mugikorren zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, tasari dagokion zergadunek, hiru hileroko Udalean auto-likidazioa egin beharko dute, eta auto-likidazioarekin batera, tasaren konturako ordainketa kontzeptupean, ordenantza honetako 5. artikuluan ezarritako formula aplikatuztik ondorioztatzen den kopuruaren laurdena sartu beharko dute, Telekomunikazioen Merkatuko Batzordeak argitaratutako urteko azken txosteneko datuen arabera.

Auto-likidazioa eta kontura egindako ordainketen sarrera, hiru hilekoa amaitu ondorengo hurrengo hilabeteko azken hamar egunetan egingo da.

9. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

Bai zergari dagokion edozein arau-hausteetan, bai horien kalifikazio desberdin guztietan, bai horiei legozkiekeen zehapenetan, Tributuen gaineko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honi, behin-betiko onespena eman zitzaien XXXXXXXXan, eta indarrean sartuko da 2008ko urtarrilaren 1ean, eta indarrean jarraituko du, hori aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.